

**2005EKO APIRILAREN 28AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita zortzia.

**HILABETEA:** Apirila.

**URTEA:** Bi mila eta bosta.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Arantza Aseginolaza Azkargorta  
Imanol Aranburu Gutierrez  
Jon Olano Arrese  
Malu Valles Fernandez  
Aitor Aldasoro Iturbe  
Joan Martin Aldaregia Etxebarria  
Jose Antonio Ibaibariaga Usabiaga  
Ana Asla Egialde  
Jon Kortaberria Lasa  
Jose Antonio Sanchez Gutierrez  
Alfonso Segade Gonzalez  
María Pilar Vispo Chamosa  
Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEAK:** Pello Garaialde Goikoetxea  
Gonzalo Zaldo eta Arana  
Iñaki Saldaña Herrero

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bilkuran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

## **1.- AURREKO AKTA.** 2005eko martxoaren 10eko aktaren onespina.

2005eko martxoaren 10eko aktaren berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak esan du ez duela akta onartu behar Igartzatik plataformakoen ordezkariak bilkuran parte hartzearekin ados ez dagoelako eta aktan haiek esandakoa jasotzen ez delako. Horren ondorioz, 2005eko martxoaren 10ean esandakoa errepikatu du, hau da:

“Los exbatasunos solo pueden ir a titulo personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el publico asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente ( Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Reitero lo que dije en el Pleno anterior. Me hago responsable.”

Beste guztiek aktarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 3

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da 2005eko martxoaren 10eko akta.

**2.- ORDENANTZAREN ALDAKETA.** Udal-tasen arloan laguntzak emateko ordenantzaren aldaketari hasierako onespina ematea.

Alkate jaunak, Gizarte-ongizate batzorde-buruari hitza eman dio eta hark 2005eko apirilaren 4ko proposamenaren berri eman du:

“Udaleko tasen arloan laguntzak emateko ordenantzaren 8. artikulua aldatzea proposatzen da. Aldaketa honetan datza:

“Emandako laguntzak gauzatzeko, ur-, estolderi eta zabor-tasen ordainketako zenbatekoak hartuko dira kontuan. Gai honetan udal-laguntza lortzeak ez du libratzen onuraduna hurrengo ekitaldietan berriz ere laguntza-eskaera egitetik eta beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztetik”, esaten duen tokian, ondorengo esan behar du:

“Emandako laguntzak gauzatzeko, ur-, estolderi eta zabor-tasen ordainketako zenbatekoak hartuko dira kontuan. Laguntzaren onuraduna Udal Ogasunetik zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona. Gai honetan udal-laguntza lortzeak ez du libratzen onuraduna hurrengo ekitaldietan berriz ere laguntza-eskaera egitetik eta beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztetik”.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**3.- LAGUNTZAK EMATEKO BAREMOA.** Udaleko tasen laguntzak emateko baremoa onartzea.

Alkate jaunak, Gizarte-ongizate batzorde-buruari hitza eman dio eta hark 2005eko apirilaren 4ko proposamenaren berri eman du:

“2004. urtean ur, zabor eta estolderi kontzeptuengatik ordaindutako ordainagiritako kopuruak subentzionatzeko diru-sarreraren baremoa ondorengo izatea :

Hileko 411,76 euro arte, ordainagiriko zenbateko guztia lortzeko.

Hileko 411,77 eurotik 551,26 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren % 75 lortzeko.

Hileko 551,27 eurotik 690,75 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren % 50 lortzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**4.- BIZTANLEEN ERROLDA.** 2005eko urtarrilaren 1eko biztanle-erroldako kopuruaren onespena.

Alkate jaunak udalerriko zenbakizko laburpen orokorraren berri eman du:

**“UDALERRIKO ZENBAKIZKO LABURPEN OROKORRA**

**Berrikuste-data : 2005-01-01**

**2004-01-01etik 2005-01-01era emandako altak:**

**Inmigrazioa            404**

**Jaioak                    115**

**Guztira                  519**

**2004-01-01etik 2005-01-01era emandako bajak:**

**Emigrazioa 387**

**Hildakoak    95**

**Guztira            482**

**UDALERRIKO BIZTANLERIA 2005-01-01EAN**

**12.586 BIZTANLE**

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko

adostasuna azaldu dute.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Aurtengo lehen hiru hilabeteetan jaiotakoak 137 dira. Iaz 129 izan ziren. Beraz, pixkanaka-pixkanaka igotzen ari gara, baina horrek ez du esan nahi erroldatzea ere igotzen denik, zeren eta agian jaioberriak ez dituzte Beasainen erroldatzen.”

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**5.- AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.** 2004ko ekitaldi ekonomikoaren aurrekontu-likidazioaren berri ematea.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA), 2005eko martxoaren 21ean likidazioari buruz emandako Dekretuaren berri eman du:

Kontuhartzaileak osatu duen Udaleko 2004ko Aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikuluan, emandako eskumenak erabiliz, hau,

#### EBATZI DUT

**Lehen.**- 2004ko Udaleko Aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2004-12-31n		4.176.820,47
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2004-12-31n		1.742.367,65
Aurrekontuko zordunak	1.675.748,04	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	66.619,63	
- Aplikatu gabeko kobrantzak	-0,02	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2004-12-31n		1.496.753,63
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	1.274.525,10	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak	1.172,29	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	221.056,21	
Aplikatu gabeko ordainketak	0,03	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3)		4.422.434,49
5.- Saldo kobragaitzak		-695.267,96
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5)		3.727.166,53
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina		-6.607,10
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7)		3.720.559,43

9- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza	1.272.015,06
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza	-17.443,01
11.- Doikuntzak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik	713.266,57
12.- Doikuntzak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik	28.495,54
13.- Aurrekontu-emaitza (9+10+11+12)	1.996.334,16
14.- Txerta daitezkeen kreditu-gerakinak	10.373.124,20

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espedientearen kopia bidaltzea.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Jarraian honela dio: “Alkateari dagokio likidazioa onartzea, baina Osoko Bilkurari kontu eman diot. Hemen azaltzen den likidazioa Udalarena da. Ez dira sartzen organismo autonomoenak. Horien berri hurrengo Osoko Bilkuran emango baita.

El porcentaje de los gastos presupuestados y las obligaciones reconocidas, el año pasado, ha sido del 46,7% de su ejecución. La ejecución de los cuatro primeros capítulos ha superado el 90%. Algunos proyectos presupuestados para el 2004 (proyecto del polideportivo, del Centro de Salud, las Normas Subsidiarias y el proyecto de rehabilitación de Igartza) no se han terminado de redactar y en consecuencia no se ha ejecutado el crédito presupuestario. En el capítulo de transferencias de capital teníamos previsto transferir capital para el ambulatorio, y también teníamos previsto recibir 1.500.000 € para la remodelación del polideportivo. Eso no se materializado porque estamos en fase de ejecución. En el capítulo ocho, todavía no se ha hecho uso del préstamo de 7.000.000. Eso es lo que hace que estemos en un 46,7% de ejecución del presupuesto para con las obligaciones reconocidas. Por otra parte sin embargo, los pagos efectuados a 31-12-04, ha sido del 90%.

En cuanto a los ingresos, la previsión definitiva del 2004 (presupuesto más modificaciones de crédito), comprándola con los derechos reconocidos, resulta que el porcentaje de cumplimiento es del 52%. Sin embargo, el de los derechos reconocidos y lo que realmente se ha cobrado es el 93%.

Si nos ceñimos al ejercicio presupuestario del 2004, el superavit es de 1.996.000 €. Si además consideramos todos los remanentes anteriores, el superavit es de 3.720.559, de los cuales se han incorporado al presupuesto de 2005. 2.500.000 €.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, beste talde politikoen ordezkariak ez dute ezer adierazi.

## **6.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

2005eko martxoaren 8tik, 2005eko apirilaren 25eraino Alkateak emandako ebazpenen berri eman da.

## **7.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

### **ABALIÑE ASTEKARIA**

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Tengo un documento encima de la mesa, que imagino que os habrá llegado a todos los grupos políticos, de Abaliñe.com. Se titula, “para nosotros no hay justicia”. Yo quería sacarlo a colación en este Pleno porque en escrito hay temas sorprendentes. La queja de esta empresa, creo que se ajusta bastante a razón. A mi me gustaría, que aunque parece que es GOIEKI, quien decide estas cosas, y aquí hay representantes con peso específico, que el Sr. Alcalde nos explicara cuales son las razones por las que hay esta discriminación, un poco desproporcionada. Este escrito dice que Abaliñe.com, es una edicion que se hace íntegramente en euskera y no recibe ningún tipo de subvención cuando otras publicaciones, como son el caso de Goierritarra, Hitzza si reciben. Sin embargo a Abaliñe.com se le niegan. ¿Será porque su promotor empresarial es una persona que es el del partido socialista de Euskadi y en su momento fue concejal?. No sé si es un delito, pero lo que si sé es que es un empresario que pone una publicación en marcha y que pretende única y exclusivamente hacer una hoja informativa a los ciudadanos de esta comarca y de otras para expresar lo que esta editorial libremente entiende. No entiendo por qué se le niega las subvenciones que a otras ediciones se le otorgan.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): Respecto a Goierritarra y a Hitzza, esta última se creo hace seis o siete meses, los Ayuntamientos reunidos en GOIEKI acordamos que al ser una revista periódica, exclusivamente en euskera y que compartía muchas cosas con Goierritarra, la ayuda fuera de 2 €/habitante. Se creo así mismo, una comisión de seguimiento en la que está Aitor Aldasoro, para analizar la evolución de la misma con el objetivo final de que ella misma se autofinancie. Goierritarra más Hitzza recibirán 2€/habitante. El criterio de GOIEKI es que ambas publicaciones tienen que ir a una conjunción de intereses. Damos prioridad a Hitzza respecto a Goierritarra y si entre ellos no llegan a un acuerdo, los Ayuntamientos subvencionarían los 2 € a Hitzza.

Respecto a Abaliñe.com desde un principio se trató en la comisión de euskera y se vió que era un suplemento de un todo. Nosotros apoyabamos

revistas que estuvieran redactadas exclusivamente en euskera, no suplementos, porque con esa dinámica quizá podrían solicitar también los de Gara, los de Diario Vasco, etc. Con todo la publicidad que se contrata, por ejemplo, en fiestas, también se contrata con Magazine.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ/PNV-EA): “Aclarar que lo que has dicho no se ajusta a la realidad. En la comisión de euskera no hemos recibido ninguna carta solicitando ningún tipo de ayuda. Lo único que hemos recibido ha sido una carta solicitando los baremos de que disponemos para conceder ayudas. Hemos respondido que las ayudas se gestionan desde GOIEKI. En consecuencia, no hemos podido negar ninguna petición de ayuda.”

“Igartatik” plataformako odezkarri jaunak: “Hitza eta Goierritarra euskeraz soilik argitaratzen dira, baina Abaliñe, elebiduna den argitalpen baten gehigarria da.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta erdietan amaitu da eta nik idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.